# 2001 KUDEAKETA TXOSTENA

Ohikoa denez, ondoko dokumentu honen bitartez 2001. urtean GEROA BGAE erakundean izan diren gertakaririk adierazgarrienak aurkeztuko dizkizuegu.

2001. urtean heriotza eta baliaezintasunen ondoriozko prestazioetako estaldura berriak indarrean sartu ziren. Kasu batzuetan, ordea, prestazio hauen ordainketa errenta gisa egin da.

Entitatearen bilakaerari dagokionez, urte hau konplexutasun handiko urtea izan da eta, hortaz, oso zaila izan da AURREIKUSPENERAKO. Batetik, hitzarmen kolektiboen negoziazioak ez du GEROA BGAErako ekarpenen ehunekoetan gehikuntzarik eragin, oro har. Bestetik, mundu-mailan ekonomia-egoerak behera egin du eta honek eragin nabarmena izan du finantza-merkatuetan; honen ondorioz etekinak ez dira handiak izan. Dena den, gure erakundea Euskadiko handiena da erakundeko partaide diren langileen kopuruari dagokionez eta bigarren handiena ekarpenei dagokionez. Honek etorkizunerako potentzial handia duela erakusten du.

2001. ekitaldian ez da sektore berririk barne hartu jarduera honetan. Euskadiko BGAE Federazioaren sarrera izan da atxikimendu berri bakarra. Bestalde, erakundean barne hartzen diren hamalau sektoreetatik hiruk baino ez dute beren ekarpenaren ehunekoa gehitu: iragan-arloak, eraikuntzak eta hornitegiak. Gipuzkoan sektoreko hitzarmenik ez duten ondoko enpresek ere areagotu egin dituzte beren ekarpenen ehunekoak: Cementos Rezola eta Savera taldeak. Ondoko taulan erakundean parte hartzen duten sektoreak eta ekarpenaren ehunekoak adierazten dira:

| SEKTOREAK | 2001ko GUZTIZKO EKARPENAREN % | SEKTOREAK | 2001ko GUZTIZKO EKARPENAREN % |
|---|---|---|---|
| Metalgintza | **%3,5** aldaketarik gabe | Papera eta kartoia | **%1,2** aldaketarik gabe |
| Zeramika | **%2,5** aldaketarik gabe | Altzariak eta osagarriak | **%1,0** aldaketarik gabe |
| Zuraren industria | **%2,0** aldaketarik gabe | Ehun-arloko merkataritza | **%1,6** aldaketarik gabe |
| Iragan-arloa | **%2,5** %0,5eko gehikuntza | Larru-arloko merkataritza | **%1,6** aldaketarik gabe |
| Okindegiak | **%1,2** aldaketarik gabe | Metal-arloko merkataritza | **%2,0** aldaketarik gabe |
| Beira | **%2,0** aldaketarik gabe | Garbiketa | **%0,5** aldaketarik gabe |
| Eraikuntza | **%2,5** %1,5eko gehikuntza | Hornitegiak | **%1,0** %0,5eko gehikuntza |

Abenduaren 31n GEROA BGAE erakundeak 116.000 langile bazkide baino gehiago zituen saldoarekin, langile hauek 7.989 enpresatakoak ziren.

Ekarpenak joan den urtekoak baino handiagoak izan dira. 2000an kuotak 42.716 mila eurokoak ziren eta 2001ean 50.462 mila eurokoak izan dira, hau da, %18,1eko gehikuntza izan da.

GEROA BGAE erakundearen ondarea ekitaldiaren amaieran 181.725 mila eurokoa izan da eta zenbateko hau langileen artean banatzen da, betiere langileek egin dituzten ekarpenen proportzioari jarraituta. Aurreko ekitaldiarekiko gehikuntza %40,54koa izan da.

## EGOERA-BALANTZEA

2001eko abenduaren 31n, mila eurotan.

| AKTIBOA | | PASIBOA | |
|---|---|---|---|
| Ibilgetua | 889 | Fondo propioak | 186.192 |
| Inbertsioak | 190.202 | 2001eko ekitaldiko irabaziak | 7.130 |
| Hainbat zordun | 640 | Hornidura matematikoak | 1.058 |
| Diruzaintza | 2.979 | Hainbat hartzekodun | 330 |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | **194.710** | **PASIBOA GUZTIRA** | **194.710** |

## GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2001eko abenduaren 31n, mila eurotan.

| GASTUAK | | SARRERAK | |
|---|---|---|---|
| Prestazioak, berrasegurua | 3.198 | Ekitaldiko kuotak | 50.462 |
| Administrazio-gastuak | 1.081 | Inbertsioen sarrerak | 12.503 |
| Inbertsio-gastuak | 4.653 | Horn. matematikoa sob. | 360 |
| Hainbat eskubide bateratu | 47.263 | | |
| | | | |
| Ekitaldiko mozkina | 7.130 | | |
| **ZORRAK GUZTIRA** | **63.325** | **HARTZEKOAK GUZTIRA** | **63.325** |

## MOZKINEN BILAKAERA




## 2001 LIKIDAZIO-BALIOAREN BILAKAERA




## ONDAREAREN BILAKAERA




## INBERTSIO-ZORROAREN BANAKETA (%)

**Bigarren aldiz jarraian inbertsiorako urte zaila:** burtsa-merkatuek galera orokorrak izan zituzten berriro ere; Ibex indizeak %7,82 egin zuen behera, Eurostoxx indizeak %20,25, Nasdaq indizeak %21,05 eta Nikkei indizeak %23,52.

Munduko ekonomien etengabeko gainbeheraren ondorioz banku zentralek eta bereziki Ameriketako Erreserba Federalak asko murriztu zituzten interes-tasak, %6,5etik %1,75era Ameriketako kasuan eta %4,75etik %3,25era Europaren kasuan.

New Yorkeko atentatuen ondorioak, ekonomia-ingurune berria, inflazioan aurreikusten diren murrizketak eta interes-tasen beherapena errenta finkoko merkatuen aldekoak izan dira. Ildo honetan, gertakari hauek gertatu ahala Geroaren ondarea errenta finkoan zentratu da. Horri esker, finantza-merkatuen egoera kaskarra izanagatik, urteko errentagarritasuna %4,7koa izan da eta, hala, %7,45eko errebalorizazio-tasa konposatua lortu da erakundea sortu zenetik. Erakundeak inbertsio-estrategia kontserbadoreari jarraitu dio eta ekitaldi honetan ere joera honi jarraituko dio, gaur egun dauden zalantzak argitzen ez diren artean bederen.

| AKTIBO-MOTA | ZORROAREN GUZTIZKOAREN GAINEKO % |
|---|---|
| Epe luzerako errenta finkoa | **76,65%** |
| Epe laburrerako aktiboak | **9,36%** |
| Errenta aldakorra | **8,74%** |
| Zuzeneko inbertsioa | **3,64%** |
| Likidezia | **1,61%** |

## PRESTAZIOAK

2001. urtean 1.096 prestazio egin dira, 482 erretiroaren ondoriozkoak izan dira, 315 baliaezintasun iraunkor erabatekoaren ondoriozkoak, 130 baliaezintasun iraunkor absolutuaren ondoriozkoak, 9 baliaezintasun handiaren ondoriozkoak, 139 heriotzaren ondoriozkoak eta 21 langilearen baliaezintasun iraunkor absolutua edo heriotza eragin duten lan-istripuen ondoriozkoak. Prestazio hauen guztizko zenbatekoa 4.753 mila eurokoa izan da.

## 2001EKO PRESTAZIOEN ONURADUNAK




Baliaezintasunen eta heriotzen ondorioz ordaindutako prestazioetatik hirurehun prestaziok estaldura osagarria izan dute, guztira 3.443 mila eurokoa. Berrehun eta zortzi kapital gisa ordaindu dira eta gainerako laurogeita hamabiak errenta gisa ordaindu dira. Errenta hauei aurre egiteko GRM/F- 95 taula aktuarialak erabili dira eta interes-tasa teknikoa %4koa izan da. Kontzeptu honen ondorioz bere egindako konpromisoak 1,55 milioi eurokoak dira eta Biharko, Pentsio Fondoen eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Aholkularitza, SAk baloratu ditu.







Lugaritz, 27 - 20018 Donostia
Telf.: 943 317022 - Fax: 943 317280
http://www.geroa.es - e-mail: geroa@geroa.es